9 Edukiera eta masa

Litroa, dezilitroa, zentilitroa eta mililitroa

!

Litroa da edukiera neurtzeko unitate nagusia.

Litroa baino edukiera txikiagoak neurtzeko, **dezilitroa, zentilitroa** eta **mililitroa** erabil ditzaket.

1 litro = 10 dezilitro = 100 zentilitro = 1.000 mililitro

1 l = 10 dl = 100 cl = 1.000 ml

1 Osatu.

- 9 l = _____ ml
- 24 l = _____ dl
- 3 l = _____ cl
- 81 dl = _____ cl
- 43 cl = _____ ml
- 60 dl = _____ ml
- 233 cl = _____ l
- 5 ml = _____ dl
- 320 ml = _____ cl
- 85 dl = _____ l
- 762 cl = _____ dl
- 89 ml = _____ l

2 Idatzi zenbat zentilitro esne falta diren ontzi bakoitzean litroa osatzeko.

92 cl	38 cl	70 cl	50 cl	75 cl	10 cl
____	____	____	____	____	____

3 Adierazi kantitate hauek, unitate bera erabiliz, eta ordenatu handienetik txikienera.

- $\frac{1}{4}$ dl = _____ 3 dl = _____ $\frac{1}{2}$ l = _____

_____

4 Osatu.

- 7 l eta 500 ml = 7.000 ml + _____ ml = _____ ml
- 1 dl eta 9 cl = _____ cl + _____ cl = _____ cl
- 23 dl eta 4 ml = _____ ml + _____ ml = _____ ml

LIVEWORKSHEETS

Kilogramoa eta gramoa

Kilogramoa da masa neurtzeko unitate nagusia.

Kilogramoa baino masa kantitate txikiagoak neurtzeko, **gramoa** erabil dezaket.

1 kilogramo = 1.000 gramo

1 kg = 1.000 g

1 Lotu masa baliokideak gezi batez.

50 kg •	• 2 kg
5.000 g •	• 250.000 g
250 kg •	• 27.000 g
9 kg •	• 50.000 g
27 kg •	• 98.000 g
98 kg •	• 5 kg
2.000 g •	• 9.000 g



2 Adierazi kantitate hauek gramotan.

- 2 kg eta 897 g = _____ g
- 9 kg eta 592 g = _____ g
- 92 kg eta 90 g = _____ g
- 46 kg eta 34 g = _____ g
- 15 kg eta 435 g = _____ g
- 45 kg eta 23 g = _____ g

3 Inguratu gorriz kilogramo erdia adierazten duten kantitateak, eta urdinez, kilogramo laurdena adierazten dutenak.

5 kg 250 g 25 kg 750 g 500 g 25 g

4 Inguratu, batuta, kilogramoa osatzen duten paketeak.

730 g, 370 g, 270 g

250 g, 750 g, 450 g

175 g, 625 g, 375 g

5 Adierazi neurri hauek, unitate bera erabiliz, eta ordenatu handienetik txikienera.

19 kg eta 456 g = _____ 47 kg eta 85 g = _____ 5 kg = _____

_____

LIVEWORKSHEETS

Kilogramoa eta tona

! Kilogramoa baino masa kantitate handiagoak neurtzeko, **tona** erabiltzen da.

1 tona = 1.000 kilogramo

1 t = 1.000 kg

1 Egin adierazitako unitate aldaketa.

- 42 t = _____ kg
- 35 t = _____ kg
- 780 t = _____ kg
- 45.000 kg = _____ t
- 16.000 kg = _____ t
- 5.000 kg = _____ t
- 96 t = _____ kg
- 8.000 kg = _____ t
- 290 t = _____ kg

2 Idatzi zenbat kilogramo falta zaizkion ibilgailu bakoitzari tona bateko masa edukitzeko.

867 kg	768 kg	15 kg	384 kg	987 kg	122 kg
_____	_____	_____	_____	_____	_____

3 Egin unitate aldaketa hauek.

- 3 t eta 678 kg = _____ kg
- 67 t eta 45 kg = _____ kg
- 15 t eta 789 kg = _____ kg
- 24.574 kg = _____ t eta _____ kg
- 5.009 kg = _____ t eta _____ kg
- 70.243 kg = _____ t eta _____ kg

4 Osatu, eta ordenatu txikienetik handienera.

$\frac{1}{2}$ t = _____ kg 75.000 kg = _____ t $\frac{1}{4}$ t = _____ kg

_____

5 Inguratu 1 t baino txikiagoak diren kantitateak.

750 kg 500 kg 2 t 1.500 kg 400 kg 10.000 kg

LIVEWORKSHEETS

Edukiera eta masa unitateen berrikusketa

1 Inguratu behar adina pisu, balantza orekatuta egon dadin.



2 Erantzun galdera hauei.

- Zenbat mililitro dira 25 l? _____
- Nola adierazten dira kilogramoak gramotan? _____
- Zenbat zentilitro dira 640 l? _____
- Zenbat gramo dira 65 t? _____

3 Egin unitate aldaketa hauek.

- 3 l eta 4 cl = _____ cl
- 52 l eta 3 dl = _____ cl
- 4 l, 8 dl eta 6 cl = _____ ml
- 2 l, 5 dl eta 90 ml = _____ ml
- 157 cl = _____ dl eta _____ cl
- 634 cl = _____ l eta _____ cl
- 7.054 dl = _____ l eta _____ dl
- 133 cl = _____ dl eta _____ cl

4 Zenbat kilogramoko zama darama 15 tona eta erdi patata daramatzan kamioi batek?

▶ Erantzuna: _____

5 25 cl-ko zenbat flasko bete daitezke, litro bat kolonia erabiliz?

▶ Erantzuna: _____

LIVEWORKSHEETS

Buruzko kalkulua

1 Kalkulatu buruz, eta lotu eragiketa bakoitza dagokion emaitzarekin.

89 + 29 •	• 81	62 •	• 105 + 29
32 + 39 •	• 72	240 •	• 23 + 39
23 + 49 •	• 919	120 •	• 82 + 49
52 + 29 •	• 118	199 •	• 91 + 29
880 + 39 •	• 127	134 •	• 201 + 39
78 + 49 •	• 71	131 •	• 150 + 49

Logika

1 Pentsatu zer pisu duen objektu bakoitzak, eta jarri gurutzea behar den laukian.

Masa	t	kg	g
Elastiko bat			
Zorro bat azukre			
Matematikako liburua			
Bolaluma bat			
Kamioi bat			
Eraikin bat			

Edukiera	l	dl	cl	mm
Pitxer bat				
Botila bat				
Kopa bat				
Kafe katilu bat				
Igerileku bat				
Tapoi bat				

2 Pentsatu mota bakoitzeko zenbat ontzi bete ditzakezun, pitxarreko ur guztia erabiliz, eta margotu. Kontuan hartu edalontziak litro laurdenekoak direla; katiluak, litro erdikoak; eta botilak, litrokoak.



LIVEWORKSHEETS

Problemak

1 Jerte haraneko 500 g gerezik 3 € balio badute, zer prezio izango dute kilogramo eta erdi gerezik?

▶ Erantzuna: _____

2 Supermerkatuan bi ontzi mota ikusi ditut; batak 1 l eta 75 cl xanpu eta 45 cl leungarri dakartza, eta besteak, berriz, 1 l eta 25 cl xanpu eta 7 dl leungarri.

- Zenbat zentilitroko edukiera du ontzi bakoitzak?

▶ Erantzuna: _____

- Ahalik eta leungarri gehien nahi badut, zer ontzi erosi beharko dut?

▶ Erantzuna: _____

3 Udal batek 3 t eta 478 kg-ko masa duen estatua bat mugitu nahi du lekuz. Estatuari, ordea, 893 kg-ko beste irudi bat erantsi diote. Zenbat kilogramoko masa izango du orain?

▶ Erantzuna: _____

4 Azoka batean, andaluziar gazpatxoa ari dira sustatzen, eta 4 botilako sortak jarri dituzte salgai, bakoitza 1 l eta 50 cl-koa. Zenbat litro gazpatxo ditu sorta bakoitzak?

▶ Erantzuna: _____

5 Nafarroako piper erreen flasko batean, 225 g piper sartzen dira. Zenbateko piper kantitatea sartuko da 10 flaskotan?

▶ Erantzuna: _____

6 Nire aitak 89 kg eta 390 g-ko masa du; nire amak aitak baino 29 kg gutxiagoko masa; eta nik, berriz, amak baino 22 kg gutxiagokoa.

- Zenbateko masa du gutako bakoitzak?

▶ Erantzuna: _____

- Zenbat gramoko masa dugu hiruron artean?

▶ Erantzuna: _____

LIVEWORKSHEETS